

42 milioi pertsona erradioaktibitatearen pean

MARTXOAREN 11N lau urte igaro ziren Fukushima zentrala lehertu zenetik eta, dagoeneko, hango berrien jarioa ez da aurreko urteetako bezain emankorra. Oraingoan, zientziari eskainitako atal honetan, gogora ekarri nahi ditugu Txernobyl eta Fukushima eragin eremuan bizi diren 42 milioi pertsonak eta beste izaki bizidunak. Neurri handiagotan edo txikiagoan erradioaktibitatearen menpe dagoen lurraldea 20.000 kilometro koadrotik gorakoa da bi gune horietan.

Bertako pertsona, animalia eta landareen heriotza tasa ofiziala ez da oso handia oraindik; izan ere, baliteke gero eta datu ofizial gutxiago ematea urteek aurrera egin ahala. Aldiz, datu estraofizialek diote minbizi kopurua hazten ari dela, eta aldaketa genetikoak gertatzen ari direla zentralen inguruan bizi diren animalien eta landareen. Azken batean, esperimenezko bizidun bihurtu dira, eta Txernobyl eta Fukushima inguruak, laborategi erraldoi bana. ■



CARL MONTGOMERY-CC BY

Txernobylgo erreaktore nuklearra.

Txertoen inguruko eztabaida biziagotu da AEBetan

Umeak izan dituen orok ezagutzen du haiek txertatzeko politika ofizialen aurkako norbait. Iaz elgorri agerraldi indartsua gertatu zen AEBetako Disneylanden, eta herrialde horretan txertoen aurkako familia asko dagoenez —elgorria areagotzea horiei leporatzen zaie, hain zuzen—, eztabaida interesgarria piztu da.

ttiki.com/337950
(Euskaraz)

Bihotzaren egoera aztertzeke, esfortzu probak ala eskanerrak?

Kirola normaltasunez egiten duen edozein bihotza aztertzeke aholkatzen zaio; hainbat lasterketatan, derrigorrezkoa izaten da aurretik azterketa hori egitea. San Diegoko Unibertsitateak (AEB) aztertu egin du horretarako zer den hobe, esfortzu proba ala eskanerra, 10.000 pertsonaren segimendua eginez.

ttiki.com/337951
(Frantsesez)

Eguzki energiaren dabilen abioia munduari bira egiten ari da

Martxoaren 9an Abu Dhabi-tik abiatu zen eguzki energia beste erregairik erabiltzen ez duen *Solar Impulse 2* abioia, munduari bira egiteko asmoz. 25 egun beharko ditu helburua betetzeko, baina ez bata bestearen ondotik, datozen bost hilabeteetan zehar baizik.

ttiki.com/337953
(Gaztelaniaz)

Ganimede sateliteak Lurra baino ur gehiago eduki dezake

GANIMEDE, Jupiterren satelitea, eguzki sistemako handiena da. XVII. mendean Galileok aurkituz geroztik, urteak gero eta datu gehiago ditugu beraren osaketari buruz. *Galileo* zundak eta berriki *Hubble* teleskopioak lortutako datu eta irudietan oinarrituz, ia ziurtzat jotzen da Ganimedek ur gazia duela lur azpian, gainazala baino 150 kilometro beherago.

Zientzialariek uste dute barne-ozeari hori gure planetakoak baino hamar aldiz sakonagoa dela: 100 kilometro ingurukoa, hain zuzen. Bertako ur masa handiagoa izan daiteke Lurraren gainazalean dagoen guztia baino.

Itsaso horretan bizi garatzeko baldintzak daudela sinetsita daude ikerlariak. ■

Itsaso horretan bizi garatzeko baldintzak daudela sinetsita daude ikerlariak. ■

NOAA



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16